

Hautesle-Erroldaren Bulegoaren jakinarazpena Udalei Espainian bizi diren atzerritarren hautesle-erroldaren osaketari buruz 2023ko maiatzaren 28ko udal-hauteskundeetarako.

2023ko maiatzaren 28an udal-hauteskundeak egingo dira.

Hauteskunde hauetan Europar Batasunaren herrialdeetako eta Espainiarekin udal-hauteskundeetan botoa emateko elkarrekikotasun Akordioak sinatu dituzten herrialdeetako nazionalak bozkatu ahal izango dute.

Espainian bizi diren atzerritarren hautesle-erroldaren osaketarako (CERE) Hautesle-Erroldaren Bulegoak (HEB) honako informazio hau jakinarazten die Udalei:

1. Europar Batasunaren (EB) herrialdeetako nazionalak

Espainiarrei hautesleak izateko exijituriko baldintzak betetzen dituzten, Espainian bizi diren EBko herritarrek, udal-hauteskundeetan boto-emate aktiboaren eskubidea erabil dezakete hauteskunde hauetan bere boto borondatea adierazten badute.

1.1. Araudia

Hautesle-Erroldaren Bulegoaren, 2010eko irailaren 7ko ebazpena, zeinaren bitartez xedatzen diren prozedurak eta onartzen den eskaera eredia Europar Batasunaren herrialdeetako herritar nazionalak udal-hauteskundeetarako hautesle-erroldan izena emateko.

1.2. Boto borondatearen aitortpenak Espainian udal hauteskundeetarako.

Udal-hauteskundeetarako boto borondatearen aitortpenaren adierazpen formalak Espainian, internetez, postaz edo pertsonalki bizilekua duten Udaletxean egin ahal izango dira.

a) Internetez:

Espainian bizi diren EBko herritarrek, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Egoitza Elektronikoaren izapidera sartuz gero, Internet bidez eman dezakete botoa Espainian udal-hauteskundeetan (baita Europako Parlamenturako hauteskundeetan ere, hala nahi badute).

<https://sede.ine.gob.es/manifestacionVotoPermanente/presentacion>

Cl@ve sistemaren bidez. Izapide hau etengabea da.

b) Bizilekua duten Udaletxean:

Adierazpen formalaren inprimakia betez, **CERE.DFA** eredia (-1 gaztelania, -2 ele bitan gaztelania katalana, -3 gaztelania euskara, -4 gaztelania galiziera eta -5 gaztelania valentziera), IDA_CELEC>n eskuragarri dagoena. Udalak deskargatzeko dokumentazioa, gainera, interesdunak berak deskarga¹ dezake INEren egoitza elektronikotik, helbide honetan:

<https://sede.ine.gob.es/manifestacionVotoPermanente/presentacion>.

Nortasunaren egiaztapena, AIZ agertzen den atzerritarren txartelarekin ez ezik, jatorrizko bere herrialdeko nortasun-agiriarekin edo pasaportearekin ere egin ahal izango da.

¹ Deskargatzen den inprimakia aldatu egiten da Egoitzan sartzean aukeratzen den hizkuntzaren arabera, elebiduna izanik katalana, valentziera, euskara edo galegoa aukeratuz gero.

1.3. Gutunak:

Udal hauteskundeetako boto borondatearen aitorpena errazteko, HEBak urriko azken egunetan, Espainian bizi diren EBko herritarrei jakinarazpen bat bidaliko die, aurretik inprimaturiko beraien erroldatze- datuekin. Jakinarazpenak bakarrik igorriko zaizkie HEBa aurreko udal hauteskundeak direla eta zuzendu ez zaienei (altak Erroldan 2018ko abuztuaren 30aren ondoren) eta adierazpen formalik egin ez dutenei. Jakinarazpen honek telematika-izapide kodea du (TIK), udal hauteskundeetan botoa internet bidez emateko aukera ematen duena, cl@vera sarrerarik izan gabe.

Gutun hau jasotzen dutenek udal hauteskundeetan botoa emateko borondatea adierazi ahal izango dute internet bidez, cl@vera sartuz edo TIK bidez, edo posta arruntez, gutunarekiko erantzuna zuzenean HEBaren Ordezkaritza Probintzialera bidaliz, frankeoa ordaindu beharrik gabe.

1.4. Epea

Espainian botoa emateko borondatearen adierazpena iraunkorra da interesduna Espainian bizi den bitartean, bestelako eskaera formalik egin ezean. 2023ko maiatzaren 28ko udal-hauteskundeetan indarrean dagoen hauteskunde-erroldan eragina izan dezaten, erroldako altak eta adierazpen formalak 2023ko urtarrilaren 30ean egin beharko dira, beranduenez.

2023ko urtarrilaren 30etik aurrera aurkeztutako adierazpenak, hauteskunde-erroldako inskripzio-datuei erreklamazioz aurkez daitezkeenak barne, ez dira txertatuko 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetan indarrean zegoen erroldan.

2. Elkarrekotasun Akordioak dituzten herrialdeetako nazionalak udal-hauteskundeetarako

Espainian bizi eta Akordioak dituzten herrialdeetako nazionalak direnen udal-hauteskundeetarako bozkatzeko eskubidea onartuz, hautesleak izateko beraietan xedaturiko baldintzak betetzen dituztelarik, 2023ko maiatzaren 28ko udal-hauteskundeetarako hautesle-erroldan izen ematea eskatu ahal izango dute.

Akordioak indarrean dituzten Herrialdeak dira: Bolivia, Cabo Verde, Txile, Kolonbia, Korea, Ekuador, Islandia, Norvegia, Zelanda Berria, Paraguai, Peru, Erresuma Batua eta Trinidad eta Tobago.

Akordioak ezarri litezkeen beste herrialde batzuetako nazionalak ere izen-ematea eskatu ahal izango dute, xedaturiko eskaera-epearen barruan indarrean egongo balira.

2.1. Araudia

-Uztailaren 20ko, EHA/2264/2010 Agindua, zeinaren bidez arauak eta argibide teknikoak ematen diren udal-hauteskundeetarako Akordioak dituzten herrialdeetako nazionalak izan eta Espainian bizi direnen hautesle-erroldaren osaketerako, irailaren 23ko, ECC/1758/2014 Aginduak aldatua.

-2022ko azaroaren 10eko Ebazpena, Hautesle Erroldaren Bulegoarena, udal-hauteskundeetarako akordioak dituzten herrialdeetako herritarrak Espainian bizi direnen hautesle-erroldan inskribatzeko prozedurak ezarri eta eskabide-eredua onartzen duena.

2.2. Izen-emateko baldintzak

Izena emateko eskubidea izateko bildu beharreko baldintzak dira:

- a) Adin nagusikoa izatea eta botoa emate aktiboaren eskubideaz gabetua ez egotea.
- b) Biztanleen udal Erroldan izena emanda egotea.
- c) Espainian bizitzeko baimena edukitzea.
- d) Delako Akordioan (Hiru urte Norvegiako nazionalentzat bozketa-egunean, hiru urte Erresuma Batuko nazionalentzat eskaera egiten den unean eta bost urte gainerako herrialdeentzat eskaera egiten den unean) exijitutako denbora Espainian legez bizilekua izatea. Baldintza hau frogatu ahal izango da Polizia-Etxeak emandako bizileku-ziurtagiria aurkeztuz.

2.3. Prozedurak eta eskaera epea

Izen-emateko eskaerak internetez, postaz edo udaletxean zuzenean egin ahal izango dira.

Izen-emateko eskaera errazteko, 2022ko azaroaren azken egunetan, HEB-ak jakinarazpen bat bidaliko die Espainian bizi diren atzerritarrei, botoa emateko elkarrekikotasun-Akordioa duten herrialdeetako nazionaleri, zeintzuk aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen dituzten, beren datu pertsonalekin eta aurrez inprimatutako bizileku-datuekin, Atzerritarren Erregistro Nagusi eta EINen dauden Udal-Eroldaren informaziotik lortuak. Errolda-informazioak 2022ko abuztuaren 30eko erreferentzia-data du. Jakinarazpen honek Telematika-Izapide Kodea du (TIK) zeinak izen-emate eskaera internetez egiteko aukera ematen duen. (A Eredua)

Hautesle Erroldaren Bulegoak egiaztatu ahal izan badu eskatutako baldintzak betetzen direla, bizileku-baimenaren indarraldia izan ezik, egun horietan bertan jakinarazpen bat bidaliko die interesdunei, TIK-rik gabe (B Eredua).

a) Internetez:

Internetez Izen-emateko eskaera egiteko interesdunak EINeko Egoitza Elektronikoaren bidez "Izen emate-eskaera" prozedurara sartu beharko dira, <https://sede.ine.gob.es>, bere nortasuna cl@ve sistemaren bidez egiaztatu eta Izen emate-eskaera aukera markatu. Cl@ve sistemarik ez dutenek bere AIZaz eta jakinarazpenean dagoen Telematika-Izapide Kodeaz (TIK) sistemara sartuz egin ahal izango dute bere eskaera.

b) Postaz:

Interesdunek HEBaren Ordezkaritza Probintzialera bidali beharko dute erantzuna zuzenean, frankeoren beharrik gabe.

c) Bizilekua duten Udaletxean:

Akordioaren baldintzak betetzen dituztela pentsatzen duten interesdunek Udaletxean zuzenean aurkeztu ahal izango dute eskaera, bere atzerritarren nortasun Txartelaz identifikatuta. Erresuma Batuko nazionalak, Udal-Eroldan 2021.1.1-a baino lehen inskribatu badira, Norvegiakoek edo Islandiakoek egiaztatu ahal izango dute beren nortasuna, atzerritarren nortasun-Txartelarekin ez ezik, beren jatorrizko herrialdeko nortasun-agiriarekin edo pasaportearekin ere.

Espainian legez bizi izandako denbora atzerritarren iraupen luzeko egoiliarren nortasun-Txartelarekin justifikatu ahal izango da, halakorik izanez gero. Hauteskunde Erroldaren Bulegoak egiaztatuko du, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren datuetara sartuz, dagokion Akordioan ezarritako legezko bizileku-denboraren betekizuna betetzen dela. Herritarrak Atzerritarren Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria badu, eta bertan bizi den denbora agertzen bada, ziurtagiri hori eskabidearekin batera erantsi ahal izango du.

CERE.N eskaera-ereduak (-1 gaztelania, -2 ele bitan gaztelania katalana, -3 gaztelania euskara, -4 gaztelania galiziera eta -5 gaztelania valentziera) 2022ko abenduaren 1a baino lehen egongo dira eskuragarri IDA_CELECen deskargatzeko.

2.4. Epea

Ezarritako eskaeren aurkezte epea **2022ko abenduaren 1etik 2023ko urtarrilaren 15era** izango da.

Udaletxeetan aurkezten diren eskaerak **2023ko urtarrilaren 20a** baino lehen bidali beharko dira HEBra.

Epez kanpo egindako eskaerak, hautesle-erroldan izen-emate datuei erreklamazioz egin litezkeenak barne, baldintza hau ez betetzeagatik gaitzetsiak izango dira.

3. Udalerriak bidalitako jakinarazpenen zenbatzeak.

Web orrian: [www.ine.es/Hautesle Errolda/2023ko udal-hauteskundeetarako](http://www.ine.es/Hautesle_Errolda/2023ko_udal-hauteskundeetarako_Espainian_bizi_diren_atzerritarren_hautesle-erroldaren_eraketa,_interesdunei_zuzendutako_informazioa_eta_udalerriek_bidalitako_komunikazioen_zenbaketak_jarriko_dira) Espainian bizi diren atzerritarren hautesle-erroldaren eraketa, interesdunei zuzendutako informazioa eta udalerriek bidalitako komunikazioen zenbaketak jarriko dira.